

Nere partetik, euskaraz eginen dut nere hitzaldi ttikia. Ikusten dut ere jaun merak ere, arras ongi erabiltzen duela euskara eta zuberotarra, eta hemen jende gehienek ere, komprenitzen duzue euskara. Beraz jaun mera, Jauregiberri familiari eta zueri egun on.

Pozez beteak ikusten nauzu jaun mera, gaur hemen herriko etxe honetan ospatzea Madeleine de Jauregiberri-ren egun hau. Jadanik gure hitzarmenak Mauleko herriak eta Eusko Ikaskuntzak sinatu duten hitzarmenaren bitartez, fruitu on batzu badie jadanik emanak, eta pentsatzen dut gaur ofreituko dugun fruitu hori arras ona eta mamitsua izanen da, Madeleine de Jauregiberri-ren egun oso hau.

Beraz bihar zuberotarrek emanen dute pastorala, Madeleinen ohoretan. Hori da nere iritziz zuberotarrek duten ikuspegia Madeleinen pertsonalitatea nola ikusten duten. Arras ongi da bainan guk Eusko Ikaskuntzan eta Jean Claude Larrondek du merezimendurik handiena, pentsatu dugu ere, behar zela, kanpotik, piska bat beste ikuspegi bat eman, eta bere pertsonalitatea hainbeste aurpegi duen pertsonalitatea batek eta haren itzulia egiteko behar zirela hizlari famatu batzu presentatu. Hortarako Euskal Herri guziko, hizlari batzu gomiatu ditugu gaur, egun luzean zehar, goizetik arratsalde arte, beren itzaldiak egiteko.

Nere aldetik, suerte ona izan dut, ezagutu baitut Madeleine de Jauregiberri, 1960 urtetan hola zen, mediku gaztea nintzen Donibane Lohitzunen, eta nere klientelan banituen bi andre, Elisa eta Maddi Arramendi, bi mutxurdin, bat beti eri zen eta egun guziz heldu nitzakon ikustera. Egun batez suertatu naiz, horien etxean eta Maddalen han zen. Ezagutza egin nuen. Behar da erran, lehenbiziko inpresioea, berehala ikusi nuen andere handi baten itxura zuela, Madalenek. Beraz, eta nik atxikitzen dutana da ere euskaltzaletasuna. Behar da erran garai heietan 1930n, hasi delarik, euskal-herri mugimenduaren bitartez bere euskaltzaletasuna erakusten gutti zela jendea orduan. Madalen beti izatu da lehena, bertzeak baino aitzinago bere ideietan. Pentsatzen dut harek ukitua izan dela euskal kontzentzia hartu

* Eusko Ikaskuntzako Iparaldeko Lehendakariordearen partehartzea Madeleine de Jauregiberriren Omenaldi jardunaldietan.

Jean Fagoaga

duela bertzeak baino ainitz lehenago. Garai hartan, arras gutti zen euskal kontzientzia zuten jendeak. Ikusi du Euskal Herria zela herri bat, bere ohidurekin, bere hizkuntzarekin, berezia eta nere iritziz, hori da Madeleinen mereximendu handienetarik bat.

Beraz jaun mera, zuri eta zuri kontseiluari milaka eskerrak. Beti senditzen dugu Mauleko herria eta herriko etxea, gibeletik dugula, beti laguntzaile, eta euskal kultura beti ongi laguntzen duela, zerbitzatzen behar den bezala. Mila esker jaun mera. Nahi nuke oraino azpimarratu Jean Claude Larronden lana eta Maite Ithurbide, gure idazkariak egin duten lana egun hau antolatzeko. Eskerrak zueri.

Jean FAGOAGA
*Eusko Ikaskuntzako Iparraldeko
Lehendakariordea*